



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO IRAILAREN 13AN  
EGUERDIKO 13:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Xabier Arregi Iparragirre.

**Zinegotziak:** Irene Garcia Palacios eta Josune Estella Arranz.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ezin-etorria adierazi dute:** Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA:**

**\*2016/07/12KO OHIKO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek, 2016ko uztailaren 12ko ohiko bilkurako akta gehiengoz onartu dute.

**2.- 2015/16 IKASTURTEAN EUSKARA IKASI DUTENENTZAKO DIRU-LAGUNTZA  
KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.**

Esp.zenb.: KE01/2016-0125

**Ikusirik**

2016ko ekainaren 20an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2015/16 ikasturtean euskara ikasi dutenek diru-laguntzak eskatzeko deialdia argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 27an hasi eta uztailaren 8an amaitu zen.

Epea amaitu ondoren, guztira 42 eskaera jaso ziren.

Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak 2016ko uztailaren 22an egindako bilkuran, ebazpen-proposamena egin zuen 2015/2016 ikasturtean euskara ikasi dutenentzako diru-laguntzen inguruan.

Ebazpen proposamena uztailaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, interesatuei hamar eguneko epea emanez alegazioak aurkezteko.

Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin behineko ebazpenaren berri eman da.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

**Eta kontuan harturik**



Usurbilgo Udala


- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2015/16 ikasturtean euskara ikasi dutenek diru-laguntzak eskatzeko deialdia (GAO, 2016/06/20)
- Diru-laguntzei buruzko ebazpen proposamena (GAO, 2016-07-29)
- Kontuhartzailletza Sailaren ziurtagiria.

Hau guztia kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabakia hartu du:

### ERABAKIA

**Lehenengoa:** 2015/16 ikasturtean euskara ikasi dutenentzako diru-laguntza kopuru hauek behin betikoz onartzea.

IZEN ABIZENAK	DIRU-LAGUNTZA
Katia Izquierdo Santos	460,60 €
Gema Molina Cuesta	460,60 €
Ana Jesus Matxain Gaztelumendi	460,60 €
Janine Vicente Medina	500,00 €
Jefferson Cañizares Mildestein	500,00 €
Paki Navarro Guadix	72,36 €
Marimar Estella Arranz	500,00 €
Jose Antonio Piñas Sanfacundo	342,00 €
Laida Unanue Tejjido	500,00 €
Usoa Zumeta Sanz	460,60 €
Gorka Goiatxe Pikabea	490,00 €
Fernando Arrieta Olasagasti	500,00 €
Olatz Askorreta Bastarrika	180,00 €
Oier Larrea Granados	140,00 €
Luis Carlos Lopez Hernandez	459,00 €
Javier Espina Roman	0,00 €
Javier Espina Roman	500,00 €



Usurbilgo Udala

Arantxa Rábano Rubio	500,00 €
Julia Lanchas Fernandez	300,00 €
Mikel Delgado Caminero	459,00 €
Eva Tames Iburguren	500,00 €
Ines Martínez Crespo	436,00 €
Ramon Carro Luengo	436,00 €
Amaia Murguia Garmendia	459,00 €
Nuria Larrañaga Rubio	459,00 €
Iñaki Murguia Garmendia	459,00 €
Sheila Duran Blanco	459,00 €
Ana Maria Arostegi Usabiaga	459,00 €
Agustin Dominguez Marquez	459,00 €
Maribel Mena Azpillaga	500,00 €
Jaione Taberna Arruti	500,00 €
Carlos Raul Blazquez Martinez	119,00 €
Lorena Santamartina Sanchez	347,00 €
Mikel Azkona Zubeldia	347,00 €
Julian Godinez Ramirez	500,00 €
Amaia Murugarren Merino	459,00 €
Mattin Zinkunegi Ugartemendia	135,00 €
Ivan Perez Villaverde	500,00 €
M. Victoria Cobo Rodriguez	347,00 €
Larraitz Matxain Odriozola	500,00 €
Patricia Canseco Moral	450,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>16.614,76 €</b>



Usurbilgo Udala

**Bigarrena:** Diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4200.480.335.00.01.2016 (A312/2016)

**Hirugarrena:** Interesatu bakoitzari ordainketa bideratzea.

**Laugarrena:** Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**Bosgarrena:** Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

### **3.- AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROAK EGIN DITUZTENENTZAKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.**

Esp.zenb.: KE01/2016-0126

#### **Ikusirik**

2016ko ekainaren 20an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 27an hasi eta uztailearen 8an amaitu zen.

Epea amaitu ondoren, guztira zazpi eskaera jaso ziren.

Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak 2016ko uztailearen 22an egindako bilkuran, ebazpen-proposamena egin zuen 2015/2016 ikasturtean aisialdiko begirale ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntzen inguruan.

Ebazpen proposamena uztailearen 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, interesatuei hamar eguneko epea emanez alegazioak aurkezteko.

Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin behineko ebazpenaren berri eman da.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

#### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2015/16 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntza oinarriak (GAO, 2016/06/20)
- Diru-laguntzei buruzko ebazpen proposamena (GAO, 2016-07-29)
- Kontuhartzailletza Sailaren ziurtagiria.

Hau guztia kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabakia hartu du:

**ERABAKIA**



Usurbilgo Udala

**Lehenengoa:** Diru-laguntza kopuru hauek behin betikoz onartzea.

IZEN-ABIZENAK	DIRU-LAGUNTZA
Iñigo Sasiain Garcia	155,00 €
Axier Dominguez Prieto	250,00 €
Ianire Furundarena Olasagasti	202,50 €
Irune Echave Larreta	202,50 €
Maidier Sanchez Learte	202,50 €
Jon Mikel Azpiazu Zubeldia	250,00 €
Itziar Irazusta Larrea	155,00 €
<b>Guztira</b>	<b>1.417,50 €</b>

**Bigarrena:** Diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4400.481.326.00.01.2016 (A313/2016)

**Hirugarrena:** Interesatu bakoitzari ordainketa bideratzea.

**Laugarrena:** Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**Bosgarrena:** Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

#### **4.- BEHAR EKONOMIKO BEREZIAK DITUZTENENTZAKO EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.**

Esp.zk.: KE.01/2016-0218

##### **Ikusirik**

Usurbilgo Udalari garrantzitsua iruditzen zaio herritarrek euskara ikastea. Gero eta gehiago dira Euskaltegiko matrikula ordaintzeko arazo bereziak dituzten herritarrak. Bide honetatik, behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei euskara ikastea erraztu nahi zaie.

Horregatik hain zuzen ere, Usurbilgo Udalak aurrekontu partida bat ezarri du euskara ikasteko behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei diru-laguntzak aurreratzeko.

##### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru laguntzak arautzen dituena.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).



Usurbilgo Udala

Hau guztia kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabakia hartu du:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Behar ekonomiko bereziak dituzten usurbildarrei euskara ikasteko matrikularen diru-kostua aurreratzeko oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak: 1.4200.480.335.00.01 2016 (A312/2016)

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Laugarrena:** Interesatuei epe hau ematea eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin: iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den datatik, 2017ko uztailaren 7ra bitartean (biak barne)

**Bosgarrena:** Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.

### 5.- W.DIAMANT S.A.-RI OSINALDE INDUSTRIALDEKO ERROTABERRI KALEA 3 PABILOIAN BULEGO SOLAIRUA HANDITZEKO BAIMENA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0259

W. DIAMANT, S.A. enpresak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Osinalde industrialdeko Errotaberri kalea 3ko pabiloian enpresaren bulegoen solairuartera haunditzeko udal baimena eskatzen du.


OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	16.589,99 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen araberrako hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 100 €
	Fidantza (%120): 120 €.

### TXOSTEN TEKNIKOA

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, 2016ko irailaren 7ean ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrari honako proposamena onartzea proposatzen diot:

Hau guztia kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabakia hartu du:



Usurbilgo Udala

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** W. DIAMANT, S.A. enpresari, Osinalde industrialdeko Errotaberri kalea 3ko pabiloian enpresaren bulegoen solairuartea haunditzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**

- Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 100 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (120 euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

**120 €-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Hondakinak-Fidantza: HZ.04/2016-0259*" jarriaz kontzeptuan.

- Bulegoen solairuartea handitzeko obra baimenak ez du inolaz ere 4/2015 Legearen 25 artikulua arabera *Lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioaren prozeduretatik salbuesteko kasuetatik* kanpo dagoen obrarik baimenduko. Kasu horretan, ezinbestean berriazko obra baimena lortu beharko da, aurrez indarrean den araudiak ezarritako lur kutsatuei dagokien prozedura eta aitortpena jaso ostean.
- Obrak hasi aurretik URA Ur Agentziari kontsulta egin eta haren oniritzia jaso beharko da obralanak egikaritzeko.
- Obrak EKT eta orohar aplikaziozkoa zaion araudia beteaz egikarituko dira.
- Jarduera baimenarekiko egokitzapena. Edonola, orain ezarri nahi den igogailuak eta bulegoak haunditzeak jarduera baimenarekiko handitze edo aldaketarik ekarriko balu, hala izapidetu beharko litzateke.
- Ander P. Beristain Bernedo arkitektoak 2016ko maiatzean idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, aipatutako eta udal teknikariak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Obra burutzeko zoru publikoan aldamiok edo kontainerra jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafikoko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:



Usurbilgo Udala

- a. Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - b. Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
  - c. Obrak amaitzeko gehieneko epea: urte 1.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
    - a) Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
    - b) Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.
    - c) Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
    - d) Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 zm.takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozeela adieraziz.
    - e) Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
  - Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
    - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
    - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
    - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
    - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Burututako ikuskapen-bisitaldian, W. DIAMANT, S.A. enpresak baimenik gabeko obrak egin dituela ikusi da. Datu zehatzagoen faltan, baimenik gabeko obra hauek indarrean den hirigintza fitxak ezarritako lerrokadurak gainditzen dituztela ikusi da (fatxada berriaren lerrokadura, eranskinak ...), eraikigarritasun konputuan eta lurzorua okupazioan ere eragina izanik.





Usurbilgo Udala

Hori dela-eta, ezinbestean egungo pabiloi osoaren egoera jasoko duten plano osatuak aurkeztu beharko dira, baita hirigintza fitxaren planoekin gainjarria ere eta 2/2006 Legeari jarraituz, **HILABETEKO epean** legeztapen prozedura martxan jarri beharko da 221. artikulua araberak. Guzti hau, baimenik gabeko obrak egin izanagatik Udalak har ditzakeen isun neurrien kalterik gabe.

**HIRUGARRENA:** Usurbilgo Udala Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPOa) erredaktatzen ari dela eta, Alkateak 2016ko ekainaren 23an helarazitako idatzian aipatutakoak berriro gogoraraztea:

(...)

Usurbilgo udalerrriak orain eta etorkizunean izango dituen beharrei erantzuteko asmoz eta HAPO dokumentuak horretarako irizpide/neurri egokiak finka ditzan, herrian dauden jarduera ekonomikoen hirigintza azterketa hasi du udalak. Azterlan horren baitan ikusi da gaur egun Usurbilen kokatuta dauden hainbat jarduera ekonomikok hirigintza espedienteen eguneraketaren/ erregularizazioaren beharra dutela.

Hau guztia dela eta, udalerriko jardueren titularroei honakoa eskatzen zaizue **orain hasi eta iraila bitartean:**

- Aurrera begira etorkizunean izan ditzakezuen beharren berri ematea Udalari, HAPO dokumentuan, bideragarria eta egokia ikusiz gero, horiei erantzuten dieten neurriak barneratu daitezten.
- Baldin eta gabeziak baleude, jarduera espedienteen eta, oro har, hirigintza espedienteen eguneraketa/erregularizazioa egin ahal izateko ekimena abiatzea.

(...)

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, eguerdiko 13:50ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**